

# 2012an omenduak izan diren Euskaltzaindiko kideak

## Ibon Sarasolak 2011ko Euskadi Ikerketa Saria jaso du

Maiatzaren 16an, Ibon Sarasola hizkuntzalari, idazle eta euskaltzainak jaso zuen 2011ko Euskadi Ikerketa Saria, Giza eta Gizarte Zientzien alorrean, Lehendakariitzako Atriumean egindako ekitaldian. Saria bizitza osoan euskararen alde egindako lanagatik eman zioten. Isabel Celáa sailburuaren eskutik jaso zuen, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ematen baitu saria. Euskaltzainak euskara batua «eraiki, zabaldu eta gizarteratu zuen belaunaldiari» eskaini zion.

Ibon Sarasolak Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegia* zuzendu zuen, 1991tik 2005era bitartean. Orain *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak* egitasmoaren zuzendaria da.

## Joxe Azurmendi filosofo eta ohorezko euskaltzainak jaso du Eusko Ikaskuntza - Euskadiko Kutxa saria

Joxe Azurmendi idazle, filosofo eta ohorezko euskaltzainari eman zioten 2012ko Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien saria, ekainaren 6an, jakinarazi zuten. Sari horren helburua «kulturaren mesedean jardunean ari diren ikertzaile, zientifiko eta Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzietan aditu onenei bikaintasuna aitortzea da».

Azurmendiren hautagaitza Euskaltzaindiak aurkeztu zuen: Zuzendaritzak proposatu zuen, eta Osoko batzarrak berretsi, aho batez, martxoan egin zuen bileran. Horretarako, «XX. mendearen bigarren zatian eta XXI. mendearen hasieran Joxe Azurmendi jaunak egindako lan erraldoia, parekorik ez duena, bereziki pentsamenduaren alorrean» kontuan hartu zuen Akademiak.

Azurmendik landu dituen gai nagusiak Pentsamenduaren Historiarekin lotutakoak dira (Filosofia, Literatura, Politika, Soziologia). Arreta berezia eman die euskal intelektualei (Orixe, Mirande, Arizmendarrieta, Salaberri, Gandiaga), baina bazter utzi gabe europar pentsamenduaren figura nagusiak, Marx, Kolakowski, Schopenhauer, Nietzsche edo Humboldt, kasu.